

# Udal talde politikoaren iritzia



## KONPROMISOA: GETXO, KIROLAREN HIRIA BIZKAIKO BADIEN

Gure udalerriko historian zehar, Getxoren izaeraren parte izan da kirolarekiko konpromisoa, bai oinarriko kirolerik hurbil egoteagatik, bai nazioarteko ekitaldi eta proba profesionalak egiteagatik. EAJ-PNV duela hiru urte baino zertxobait gehiago aurkeztu zen hauteskundeetara eta argia zen laugarren konpromisoa: Getxo, kirolaren hiria Bizkaiko badian. Hori guztia, betetzen gabiltzan oinarriko hiru ardatzekin, zeinetan ahalegin nabarmena egiten ari baikara: aisialdi osasungarria eta kirola egitea bultzatzea; Getxoko klubekin etengabe harremanetan egotea; eta Abrarekiko, itsasadararekiko nahiz itsasoarekiko apustua.



udal-estadio berriaren eraikuntza eta errugbi/hockey/belodromoko harmailen erreforma.

Konpromiso horiek guztiak oinarriko kirola —haren modalitate guztietan—, kirol-jarduerak eta ariketa fisikoa lagundu eta bultzatzeko programetan ere islatzen dira, zeinak Getxon nabarmentzen diren adin guztiei zuzenduta baitaude. Izan ere, EAJ-PNVn uste dugu herritarrak hainbat baliotan hezteko modu paregabea dela, hala nola errespetua, elkartasuna, konfiantza eta talde-lana helaraziz.

Hauteskunde-programa eta Amaia Agirre buru duen emakume eta gizonen taldea aurkeztu genituenean, Eusko Alderdi Jeltzaleak kirolarekiko erabateko ardura eta lan-ildoak mantendu zituen, ongizatea eta bizitza osasungarria sustatzeko pertsona nahiz eragile guztien gizarte-koehsioko eta integrazio-eredu den aldetik.

Getxon hazi, bizi, lan egin eta gozatzear aritu gara urte hauetan. Horre-

tarako, aisialdi osasungarriko espazioak behar ditugu, besteak beste Fadura parke berri zoragarria, etorkizunean izango dugun garagardotegia, zeina aurrera baitoa, eta Thinking Fadura osatzen duten proiektuetako edozein; azken hori proiektu izarra izan da, parte-hartze handia egon baita eta garapen-proposamen positiboak egin baitira horren harira.

Bete ditugun proposamen eta ekimenen artean aipatzekoa da Bolueko landak hobetu direla, igerilekuak nahiz aldagelen gunek erosoagoak egin direla, eta kalisteniarako parkea jarri dela; halaber, gogorarazi nahi ditugu Gobelan yoga aire zabalean egiteko proposamenak. Baliteke baten bat egin barik jarraitzea, baina konpromiso gisa mantentzen dira, horien kasua da

Horren ildotik, Getxo kirolaren hiri izan dadin dugun konpromisoari eutsiz, gogoan izan behar dugu jada abian diren programekin Abraren eta ur-geruzaren alde egindako apustu berritzailea: ur-geruzaren erabilera garrantzia; Areetako ontziralekuko pantalan berria; eta Kirol Portua, non ekonomia eta kirola garatzeko estrategia ezarri baita itsasoari lotuta, Getxo Itxas Hub izanik horren proposamen nagusia. Betetzeko diren konpromisoen erakusgarri dira horiek guztiak.



## JARDUERAK GABONETAN



Bi urtez murrizketak izan ostean, argi dago normaltasunera itzultzen ari garela, eta uste dugu Gabon-garaian, aurten are gehiago, berezkoak izaten diren ilusioa eta ospatzeko gogoak islatu behar direla. Era berean, Gabon-garaia herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko eta gure herriko merkataritza berrakibatuzko une egokia da. Horrenbestez, PPko kideok go-

bernu-taldeari honako eskari hauek egin nahi dizkiogu, besteak beste: izotz-pista tradizionala berreskuratze eta San Nikolas plazan jartzeko; gure Errege Magoen desfilea hobetzeko; beren-beregi Gabonetarako den Getxobonoa sortzeko; eta Antzokiko nahiz Romoko ikastetxeko aparkaleku-plazak herritarrentzat gaitzeko garai honetan. #esnatuGetxo



## DESINFORMAZIOA, MANIPULAZIOA ETA ERAISKETAK

Aurreko asteetan Hirigintza Antolamendurako Plangintza Orokorrari (HAPO) buruzko auzo-batzarrak egin genituen. Hiru egunetan aretoa bete zen eta jendeak haserrea eta informazio falta adierazi zigun. Ehun familiarik gorari euren etxea eraitsiko diete eta oraindik ez dakite zeintzuk izango diren desjabetzearen baldintzak. Gainera, inork ez die zuzenean adierazi euren etxea ordenantzatik kanpo geratuko dela HAPOa onartzen bada.

EH Bildutik argi ikusten dugu plan hau ez dagoela herritarren ongizateari begira eginda eta promozio urbanistikoa baldintzatuta dagoela zeharo, interes ekonomikoerantzuz.

Udal Gobernuak hiru hilabete utzi ditu herritarrok dokumentazioa aztertzea eta alegazioak egin ahal izateko.

Guk epe hori luzatzeko eskatu dugu, ezinezkoa delako prestatzeko urteak eskatu dituen plan hau hiru hilabeteetan ulertu eta proposamenak egin ahal izatea. Halaber, argi dago plan honek ezin duela aurrera egin eta guztion artean gelditu behar dugula. Alde batetik, alegazioak egin daitezke, modu indibidual zein kolektiboan (<https://hapo-getxo.eus/eu/partehartu>). Hemendik eta hamar urtera izango dugun herriari begira ditugun ekarpenak erregistratzea garrantzitsua da. Beste alde batetik, "Adi Hapo!/Alerta PGOU!" plataforma sortu dute hainbat herritarrek (Instagram:@hapogou\_ eta Twitter: @AdiHapo), haserrea antolatzea eta kolektiboki erantzuteko, indarrak batuz.

Guztion artean geure herria defendatzen jarraituko dugu!



## CARMEN DÍAZ, GETXOKO ALKATEGAI SOZIALISTA



Carmen Díaz Getxoko PSE-EE alderdiko alkategaia izango da hurrengo udal-hauteskundeetan. Gaur egungo alkateordeak, Udaleko Gizarte-koehsioko zinegotziak, **aukeraz jositako Getxo udalerrira eraikitze gogo bizia eta erantzukizuna** erakutsi ditu, gure **lehtasuna pertsona eta konpromiso soziala** baitira. Carmen Getxok aurrera egiteko bermea da, bai eta egonkortasuna izan dezan ere. **Berdintan sunaren, gizarte-jasangarritasunaren eta guztion ongizatearen alde** lan egiteko erronkak eta proiektuak, hala nola sozialistok kudeatzen dugun Gizarte-koehsioko Arlotik bultzatu ditugunak.



## SALSIDUKO BIZILAGUNAK ENTZUTEA, UDALAREN EGITEKOA

Salsiduko bizilagunak aspalditik daude kezkatuta beren **etxebizitzaren eraispenagatik**, hala baitago jasota HAPO berrian. Elkarrekin taldeko kideok uste dugu euren etorkizuna erabaki beharko luketela eta beren etxebizitzak mantentzeko nahia errespetatu beharko litzatekeela. Udalaren zeregina da haiek entzutea eta, batez ere, ordezkari bizitokia emateari dagokionez dauden aurrei-

kuspenen berri ematea behar bezala. Hori guztia, eguneratutako informazioarekin egin behar da, eta ez egiten ari den bezala, **jada zaharkituta dagoen uholde-arriskuko mapa** batekin. Ezinbestekoa da ahalik eta adostasunik handiena lortzea, betiere eraikin eta kasuistika bakoitzerako emandako neurriak hartuz. Bizilagunekin jarraituko dugu harremanetan, aldarrikapenetan babesa emateko.